## SOZIETATE ANONIMOA (I)

- **Ezaugarri orokorrak**
- **Merkataritzako sozietatea**
  - **Objektua edozein** izanda
  - Bere sorrera bi arrazoitan oinarrituta: inbertsiogile txikiek hobeto aurrez dezaketelako eta erantzukizuna

- **Sozietate anonimoaren nozioa**

  - Kapitala bazkideen ekarpenez osatuta dago eta akziotan zatituta dago
  - Akzioak eskualdagarriak dira eta bazkideari akziodun izaera emango diote
  - Bazkideen erantukizuna zor sozialengatik mugatua izango da bere ekarpenetara
  - Eraketa: sozietate kontratua eskritura publikoan egiletsiko da eta hori Merkataritzako Erregistrora eramango da inskribatzera

- **Kapitala**

- Kapital nominala
- Kapital erreala edo Ondare netoa
- Kapitalaren printzipioak:
  - Estatutuek zehaztuko dute kapitalaren zifra
  - Osoki harpidetua eta %25 despoltsaturik ; baina eskualdatu nahi bada, osorik despoltsatu beharko dira.
  - Kapitala eta ondarearen arteko zuzeneko erlazioa
    - Hasieran, Kapitala = Ondarea (Kapital nominala)
    - Geroago, irabaziak eta galerekin ondare garbia aldatu egiten da (Kapital erreala edo Ondarea)
    - Halere, kapital-zifra beti berdina izango da, kapital gehikuntza edo murriztapen espresuki burutzen ez bada (estatutuak aldatu egin beharko lirateke)
  - Gutxieneko kapitala (60.000 €)

- **Akzioa eskubide bezala. Akziodunaren eskubide nagusiak**

- Kapitalaren zatia = Kapital zifra / akzio kopurua
- Balioak
  - Balio nominala
  - Balio teorikoa (kontablea edo balantzezkoa)
  - Merkatuaren kotizazioa edo kotizazio balio (eskaintza eta eskariaren artekoa)

- Akzioa eskubide bezala. Akziodunaren eskubide nagusiak
  - Irabazietan parte bat hartzeko eskubidea (Batzak Nagusiak erabakiko ditu *dibidenduak* / kobratuko dira despoltsatutako kapitalaren proportzioan)
  - Kitapen (likidazio) kuotan parte hartzeko eskubidea (kitapena egin ondoren ondarean parte hartzeko eskubidea)
  - Harpidetza lehentasun eskubidea
    - Akzio berrien jaulkipenean
    - Lehengo akzio kopuruaren balio nominalaren proportzio berean
  - Batzar Nagusira joateko eskubidea eta botu eskubidea (mugatu egin daiteke/ elkartu egin daiteke)
  - Informazio eskubidea (aurretik edo batzarrean bertan). Urteko Kontuak
  - Akordioak aurkatzeko eskubidea
    - Akzioak libre eskualdatzeko (transmititzeko) murriztapenak
    - Akzioak ordezkatuak izateko

- Akzio pribilegiatuak
  - Boturik gabeko akzioak
    - Absentismoa gainditzeko
    - Gehienez, despoltsatutako kapitalaren erdia
    - Eskubideak
    - Akzio arruntak bezala, botua izan ezik
    - Eskubide pribilegiatuak: estatutuetan ezarritako gutxieneko dibidendua, kapitalaren murriztapenean ez dira ukituko, kitapen kuotan arruntek baino lehenago kobratuko dute.
  - Eranskinezko prestazioak dituzten akzioak

- Akzioaren dokumentazioa eta eskualdaketa

- Akzioa gauzatzeko forma (balore mobiliarioa): titulua, kontu oharpena
- Akzio izendunak (tituluak) eta eramaileari
- Tituluaren ezaugarriak: Akzio izendunen Liburua
- Akzioen eskualdaketa
- Akzioen eskualdaketari ezartzen zaizkion murriztapenak:
  - Eskuratzeko lehentasun eskubidea
  - Baimena emateko klausulak
  - Akzioak eskuratzeko erosleak bete behar dituen baldintzak

- Akzioen gaineko jabekidetza eta eskubide errealak
  - Jabekidetza
  - Usufruktua
  - Bahitura (prenda)

- Berezko akzioen gaineko negozioak

  - Berezko akzioen jatorrizko eskurapena
  - Berezko akzioen eskurapen eratorria
  - Eskurapen askeko egoerak
  - Berezko akzioen eraentza (Ks %10 + erreserba ukiezina + saldu urtebete)
  - Zigorrak (administratzaileei espedientea)
  - Elkarren arteko partizipazioak

- **SOZIETATE ANONIMOAREN DEITURA**

- **SOZIETATE ANONIMOAREN EGOITZA (EGONGUA) ETA NAZIONALITATEA**

- **ERAKETA BALDINTZAK**

- Eraketa prozedura:

  - Albiberekoa, aldiberean kontratua burutu eta eskritura publikoa egiletsi
  - Jarraingoa, aldiberean eman ezin dena, konplexuagoa eta akzioen harpidetzarako promozio publikoa behar denean

- Eratze bidean dagoen sozietatea (KSL 37 art.): sozietateak erantzungo du inskribatzeko asmoarekin egin diren egintza guztiengatik.

- Sozietate anonimo ez-regularra

- **SOZIETATEAREN DEUSEZTASUNA (KSL 56 art.): KITAPENA EKAR DEZAKE**

  - Borondaterik eza
  - Bazkide fundatzaileen gaitasunik eza
  - Estatutuek sozietatearen izendapena ez jasotzea
  - Ez bidezko objektua (jarduera) izateagatik
  - Estatutuetan kapital zifra eta partizipazioak ez jartzeagatik
  - Gutxieneko kapitala ez despoltsatzeagatik

- **SOZIETATEAREN EKARPENEN ERAENTZA**

- Diruzko ekarpenak
- Ez diruzko ekarpenak edo *in natura* (adituen balorazioa)
- Eranskinezko prestazioak

- Dibidendu pasiboen eraentza (KSL 81 art. eta ondokoak ):
- Zor den despoltsaketa egin behar da
- Berandutzan: botorik gabe + dibidendurik ez + akzio berriak eskuratzeko lehentasunik ez.-
- Behin ordainduta interesekin, eskubide horiek eskuratuko ditu
- Liberaturik gabeko akzioak eskuratzen dituenak erantzungo du zor horretaz solidarioki aurreko eskuratzaile guztiekin. Ordaintzen duenak ondoko eskuratzaile guztiei eska diezaieke.